



SOZIOLINGUISTIKA ETA UEU (UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA)

Lore Erriondo

UEUren zuzendaria

Helbide elektronikoa: zuzendaritza@ueu.org

UEUren jatorria 1970-72an Baionako Euskal Erakustokian antolatu ziren Euskal Asteak ditugu. Horien arrakasta ikusirik, eta 1972ko ekitaldian Karlos Santamariak Euskal Unibertsitatea sortzeko premiaz emaniko hitzaldiaren bidetik, Euskaldunen Biltzarra, Ikas, eta Fededunak elkartek UEU antolatzea erabaki zuten 1973ko udan, abuztuaren 29tik irailaren 8ra bitartean, Euskaltzaindiaren babespean. Lehengo ekitaldi biak Donibane Lohizunen egin ziren eta ondorengo biak Uztaritzen. 1977ko ekitaldiak Hego Euskal Herrian burutzea erabaki zen, Iruñean alegia. Udako ekitaldien eragina zabaldu nahian, 1985. urtetik abiatuta, urtean zehar ere Jardunaldiak antolatzea erabaki zen, publiko orokorrari zuzendutako dibulgazio-mailako hitzaldi eta mahai-inguruz osatuak. Urteak aurrera egin ahala eta ikusirik Euskal Unibertsitateen bidean Euskal Herriko unibertsitateek ez dutela oraindik asetzen normaltasun irizpideetatik Euskal Herriak behar duen eskaintza, udako ikastaroez, jardunaldi eta hitzaldiez gainera, etengabeko prestakuntzari ekin genion bai eta unibertsitate mailako ikasketak eskaintzeari, bai gure aldetik zein beste unibertsitate, elkarte eta erakundeekin elkarlanean.

Oinarri bibliografiko sendoa ezinbestekoa da edozein unibertsitate-entzat. Hori jakinda, UEU unibertsitate-mailako liburuak bideratzen aha-

legindu da ia hasieratik. Betidanik, eskuliburuei eman zaie lehentasuna. Baina ez da zientziaren zabalkuntza baztertu eta dibulgazio-liburuak ere bideratu dira. Euskara bera lantzen eta unibertsitate-premietara egokitzen ahalegin berezia egin du UEUK. Honekin batera, UZTARO giza eta gizarte-zientzietako aldizkaria argitaratzen dugu.

UEUren egituraren oinarrian bazkideak daude. Berak dira erakundearen oinarria eta beraien borondatezko lan izugarriari esker atera da aurrera UEUren proiektua. Bazkide guztiek sail bateko kide izateko eta bertan lan egiteko aukera dute. Era honetan, UEUn aktiboki parte har dezakete udako ikastaroak antolatzen, gai konkretu baten inguruko jardunaldiak edo topaketak prestatzen, irteerak egiten, etab.

UEU sailetan antolatuta dago, beroriek jakintza-arlo ezberdinen isla direlarik. Sailak UEUko antolakuntza, ikerkuntza eta irakaskuntzaren oinarritzko unitateak dira eta hiru jakintza arlo handitan daude banaturik: Arteak, Giza eta Gizarte Zientziak eta Zientziak. Gaur egun 26 sail ditugu: Antropologia, Antzerkilaritza, Arkitektura, Artea, Bertsolaritza, Ekonomia, Filosofia, Fisika, Historia, Hizkuntzalaritza, Informatika, Itzulpengintza, Kazetaritza, Kimika, Klimatologia eta Meteorologia, Literatura, Matematika, Musika, Natur zientziak, Osasuna, Pedagogia, Psikologia, Sexologia, Soziolinguistika, Soziologia, Zuzenbidea eta Glotodidaktika

SOZIOLINGUISTIKA SAILA

Soziolinguistika sailaren helburua, barne-hausnarketa eginez bere esparruan beharrezkoak ikusten dituen jarduerak antolatzea da. Berak antolatzen du urteroko udako ikastaroetan berari dagokion jarduera-esparruko ikastaroa. Ezin ditugunez guztiak hona ekarri, aurtengoaren adibidea jarriko dugu. Honako hau, Soziolinguistika Klusterrarekin batera antolatu dugu, *Erronka berriak euskararen erabileran* izenburupean. Ikastaro honen helburua, azken hoge urteotan EAEn euskararen ezagutza mailan izan diren aurrerapausoak aintzat hartuta, erabileraren azterketa egitea izan da normalizazio prozesuan, bai eta oinarri teorikoen lanketa egitea ere, honako egitarauaren bitartez:

Udako Ikastaroak 2006 — Sarrera

- Zenbait gogoeta portaera linguistikoaren kausalitateaz. I.Bullaín, EHU, eta M. Ertzilla, Mikelats euskaltegia
- Euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosoziala. I.Garcia, Mondragon Unibertsitatea
- Euskara eta lan mundua: erabilera nola bultzatu. EMUN Koop. E. - Imanol Larrea.
- Erabilera ikertu eta bultzatu: Soziolinguistika Klusterraren egitasmoak aurrera begira. L. Joly, Soziolinguistika Klusterra – Pariseko Sorbonneko Unibertsitatean doktoratua
- Talde naturaletan euskararen erabilera suspertzeko eredu teoriko eta metodologiko bat: Kuadrillategi egitasmoa. Pello Jauregi, Kuadrillategi
- Euskal Eskolak hizkuntzen erabilera eta euskararen indarberritzea ahalbidetzeko

Urteak aurrera egin ahala eta ikusirik Euskal Unibertsitateen bidean Euskal Herriko unibertsitateek ez dutela oraindik asetzen normaltasun irizpideetatik Euskal Herriak behar duen eskaintza, udako ikastaroez, jardunaldi eta hitzaldiez gainera, etengabeko prestakuntzari ekin genion bai eta unibertsitate mailako ikasketak eskaintzeari, bai gure aldetik zein beste unibertsitate, elkarte eta erakundeekin elkarlanean.

Soziolinguistika sailaren helburua, barne-hausnarketa eginez bere esparruan beharrezkoak ikusten dituen jarduerak antolatzea da. Berak antolatzen du urteroko udako ikastaroetan berari dagokion jarduerak esparruko ikastaroa. Ezin ditugunez guztiak hona ekarri, aurtengoaren adibidea jarriko dugu. Honako hau, Soziolinguistika Klusterrarekin batera antolatu dugu, Erronka berriak euskararen erabileran izenburupean.

markoa. E. Osa, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko Hizkuntza arduraduna

-Gari berriak, hizkera berriak; kaleko euskararen bilakaera. K. Amonarriz, soziolinguista

-Hizkuntzak etnografia ere behar du. Gazteak eta euskara ikuspuntu antropologiko batetik. J.M. Hernandez, Tolosako euskara teknikaria, antropologian doktoratua

-BAI EUSKARARI AKORDIOA HERRIETAN Euskaingintzak entitateen konpromisoak dinamizatzeko herri mailako eredu bat. Zigor Etxeburua, Kontseilua

-Euskararen erabilera normalizazioa Gipuzkoako Foru Aldundian. J. Amundarain, GFA euskara teknikaria

-Euskararen erabilera sustatu: Euskararen Erakunde Publikoaren erronka.

Christophe Betheder, Euskararen Erakunde Publikoa

-Euskararen erabilera: egoera eta aurrera begirako egitasmoak. Begoña Atxustegi, Hizkuntza Politika Sailburuordetza

-Mahai-ingurua: Euskararen erabileraren garrantzia hizkuntzaren plangintzan. Kontseilua, J. Amundarain, J-C Iriart, HPS

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Aipatu bezala, etengabeko prestakuntzari ekin genion profesionalen etengabeko prestakuntza mailako premiak asetzearren. Soziolinguistikaren inguruko aurtengo adibide bat da jarraian azaltzen duguna:

Irakasleak: *Soziolinguistika Saila*

Eskola orduak: 20 orduko ikastaroa.

HELBURUAK:

Soziolinguistika irakasteko teknika eta estrategiak ezagutzea; helburu nagusi hau lortzeko, klasean ikasleek lortu beharreko helburuak eta edukiak landuko ditugu beti ere ikuspuntu didaktikoa zainduz. Hauek dira, oro har, ikasleek lortuko dituzten helburuak: munduko hizkuntz aniztasuna eta berdintasuna ezagutzea; hizkuntzen inguruko aurreiritziak deuseztatzea; hizkuntza homogenizazio prozesua ulertzea; hizkuntza eskubideak ezagutzea; euskara arautzen duten legeak ezagutzea; ikasleei gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoera soziolinguistikoa zein den ikustaraztea; hizkuntza normalizatzeko jorratu diren plan nagusiak ezagutzea eta hizkuntza erabilera arauak zeintzuk diren ezagutzea.

EGITARAUA

Munduko hizkuntz aniztasuna:

Aniztasuna eta hizkuntza ukipena.

Hizkuntza aldaketa.

Hizkuntza komunitatea.

Hizkuntza gatazka.

Hizkuntza minoritarioa eta minorizatua.

Hizkuntz homogenizazio prozesua.

Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa:

Motibazioa.

Ezagutza.

Erabilera.

Neurketa teknika eta estrategiak.

Hizkuntza eskubideak.

Euskararen erabilera arautzen duten legeak:

EAEn.

Nafarroan.

Iparraldean.

Hizkuntza plangintza eta politikak: hizkuntza normalizazioa:

Joshua Fishman: "Reversing Language Shift".

Txepetx: Sánchez Carrión: "Un futuro para nuestro pasado".

Hizkuntza irudikapenak:

Autogorrotoa.

Irudikapen okerrak: aurriritziei aurre egiteko estrategiak.

Hizkuntza indartsuak eta indartsuen hizkuntzak.

Hiztunen mekanismo psikosozialak

Erabilera arauak

UEU-REN GRADUONDOKO-ESKAINNTZA

Sarreran aipatu bezala, UEUk unibertsitate mailako ikasketak eskaintzeari ekin zion, beti ere osagarritasun irizpidea nagusi izanik; hau da, euskaraz gainerako unibertsitateek eskaintzen ez duten eta garrantzitsua deritzogun prestakuntza, bai gure kasara zein beste unibertsitate, elkarte edo erakundeekin elkarlanean. Honela, azken urteotan, soziolinguistikaren esparruan, eta Eusko Ikaskuntzako Asmoz erakundearen eta UPV/EHUren laguntzaile izan gara 2004/05 ikasturtetik egunera arte, *Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET)* delakoan.

Soziolinguistika zentzurik zabalenean hartuta, UPV/EHUrekin batera eskaintzen dugu 02/03 ikasturtetik abiatuta gaurdaino *Hizkuntza-Teknologiak (HIZTEK)* espezialista titulua eta masterra. Konputagailuak eta konputagailu-programak gero eta gehiago erabiltzen ditugu geure eguneroko jardunean, eta programa horietako askok eta askok testua nola edo hala "tratatu" egiten dutela ikusirik eta konputagailuekiko komunikazioa hizkuntza arruntaren bitartez—eta ez lengoia formal baten bidez—egin ahal izatea gero eta normalago izango denez, gizarte eleanitzak hizkuntza batetik bestera egin behar izaten dituen joan-etorriak leuntzeko, aparteko lagun dugu la konputagailua hartu behar dugu kontuan. Gainera, telekomunikazioetan gertatutako aurrerapen izugarriak eragin duen Internet fenomenoak, areagotu egin du hizkuntzaren tratamendu automatikoaren beharra; interesatzen zaigun informazioa ondo selekzionatzeko esaterako, tratamendu linguistiko lagungarria ezinbestekoa baita. Hizkuntzaren industria oso bat sortzen ari da, konputagailuaz baliatuz hizkuntza prozesatzea helburu duena. Jakintza arlo berri honetan ezinbestekoa da informatikari eta hizkuntzalarien arteko lankidetzeta eta diziplinartekotasun honetan oinarrituta antolatu dugu hizkuntzalaritza eta Informatika uztartu nahi dituzten filologo zein hizkuntzalariei, hizkuntzalaritza eta informatika uztartu nahi dituzten informatikari nahiz ingeniari, alor honetan lanean ari diren profesionali edota eguneroko jardueran gai hau jorrazten duten

Soziolinguistika irakasteko teknika eta estrategiak ezagutzea; helburu nagusi hau lortzeko, klasean ikasleek lortu beharreko helburuak eta edukiak landuko ditugu beti ere ikuspuntu didaktikoa zainduz. Hauek dira, oro har, ikasleek lortuko dituzten helburuak: munduko hizkuntz aniztasuna eta berdintasuna ezagutzea; hizkuntzen inguruko aurreiritziak deuseztatzea; hizkuntza homogenizazio prozesua ulertzea; hizkuntza eskubideak ezagutzea; euskara arautzen duten legeak ezagutzea; ikasleei gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoera soziolinguistikoa zein den ikustaraztea.

Euskaraz gainerako unibertitateek eskaintzen ez duten eta garrantzitsua deritzogun prestakuntza, bai gure kasara zein beste unibertsiteate, elkarte edo erakundeekin elkarlanean. Honela, azken urteotan, soziolinguistikaren esparruan, eta Eusko Ikaskuntzako Asmoz erakundearen eta UPV/EHUren laguntzaile izan gara 2004/05 ikasturtetik egunera arte, Hizkuntza Plangintza ikastaroa (HIZNET) delakoan. Soziolinguistika zentzurik zabalenean hartuta, UPV/EHUrekin batera eskaintzen dugu 02/03 ikasturtetik abiatuta gaurdaino Hizkuntza-Teknologiak (HIZTEK) espezialista titulua eta masterra.

beste jakintza-arlo batzuetakoentzat espezialista tituluaren kasuan eta espezialista ikasturtea gainditu dutenei edota lizentziatura edo Ingeniari-tzako amaierako proiektua oraindik aurkeztu gabe dutenentzat, masterraren kasuan.

JARDUNALDIAK ETA BILKURAK

Soziolinguistikaren inguruan aurten antolatutakoak ditugu, *Immigrazioa eta hizkuntza politika udalerrri euskaldunetan*, UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearekin elkarlanean, abenduaren 14a, honako egitarau honekin:

- Jardunaldien aurkezpena: Kontxi Gabantxo, UEMAko presidentea ; Lore Erriondo, UEUko zuzendaria
- Immigrazioen fenomenoak. Etorkinak integratzeko EAEko II. planaren aurkezpena. Xabier Aierdi, EHU/UPV Soziologia saila eta Immigrazioko Behatokioko zuzendaria
- *Ikasle etorkinak euskalduntzen Felix Etxeberria*, EHU/UPVko Pedagogia katedraduna
- *Etorkinak integratzeko plan ezberdinak Kataluniako udaletan*: Hizkuntzaren tratamendua harrera egiterakoan. Mercé Solé. Casa de les Llengües Etorkinein harrera. Vic-eko ereduak. Trini Noguera. Vic-eko udala *Udal esperientziak: harrera hizkuntza ikuspegitik* Imma Pagés. *Consorti per a la Normalització Lingüística*
- Papergabeak Xabier Azkoitia. Abadea. *Bazterketa sozialerako arriskua duten pertsonen harrera, gizarteratzea eta laguntzako kidea*
- *Mahai-ingurua. Euskaldundu diren etorkinen esperientziak: egindako bideak, arazoak, eskaerak... Moderatzailea: Xabier Azkoitia* Partehartzaileak: Nora Palmitano, argentinarra; Sandra Mosquera, ekuadortarra; Guina Lo, senegalarra
- *Sakanako esperientzia: egindako bidea eta hausnarketa kritikoa* Iker Mariñelarena. *Sakanako Mankomunitateko Euskara batzordeko lehendakaria*
- *Kultur aniztasuna eta immigrazioa*. Udal euskaldunei proposamena. Marcos Nanclares. *Immigrazio eta aniztasunaren trataera hezkuntza espezialista*

Honetaz gainera, Uribe-Kostako Euskara Zerbitzu Mankomunitatearekin batera azaroaren 8an eta 9an Kultur Leioako Auditorium-ean burututako *Gaztea izan eta euskara ahoan* izeneko jardunaldia antolatu genuen. Jardunaldi hauen helburu nagusia euskararen erabilera gazteen artean sustatzeko teknikak, estrategiak eta metodologia baten abiabururak eskaintzea izan da arlo honetan lanean diharduten profesionalen zein interesa dutenei bideratua. Izan ere, jardunaldi hauek ageriko egoera batetik sortu dira: gazteen artean alde itzela eta kezagarria dago ezagutzaren eta erabileraren artean. Asko dira euskara arauzko irakaskuntzan ondo ikasi arren kalean erabiltzeari uzten diotenak. Zergatik? Zer egin daiteke galera hori eragozteko?

Jardunaldi hauen bidez lehenik gazteak nolakoak diren landu nahi izan da; jarraian, gazteen harreman-sareak eta nola komunikatzen diren aztertu da. Zein argot, ikur, kode eta abar erabiltzen dituzten, era horretan, hizkuntza-alderdiak aletuz, bai eta beste hainbat gai ere: gazteen motiba-

zioa, zerk erakartzen dituen, hizkuntza aukeratzeko arrazoiak, hizkera bereziaren beharraren zergatia, klaseetatik kanpo gaztelania erabiltzearen arrazoiak,...

UZTARO ALDIZKARIA

1990ean sortu zen UZTARO aldizkaria, giza eta gizarte-zientziei buruzko artikulua argitaratzeko helburuarekin. Argitaratzen dituen lanak ondoko arloetakoak dira batik bat: ekonomia, zuzenbidea, psikologia, pedagogia, filosofia, kazetaritza, soziologia, soziolinguistika, linguistika, glotodidaktika, literatura, itzulpengintza, ikasketa klasikoak, artea, musika, historia eta geografia. UEUk antolaturiko ikastaro, mintegi edo jardunaldien inguruan sorturiko lanek dute lehentasuna UZTARO aldizkarian, baina kanpotik bidalitako lanak ere gero eta ugariago argitaratzen dira, unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileenak gehienbat, baina baita unibertsitario ez direnak ere, ikertzaile eta idazle ezagun eta berrien arteko oreka bilatuz. Ahalgin handia egiten ari da aldizkaria kalitatearen bila, lau alorretan arreta berezia ezarriz:

- Edukiaren kalitatea zainduz, artikuluei gutxienez bi iragazki igaroraziz onartuak izateko.
- Euskararen zuzentasuna landuz, ulergarritasuna eta hiztegi teknikoaren estandarizazioa kontuan hartuz, bi zuzentzailearen lanarekin artikuluro gutxienez hiru aldiz zuzenduz.
- Aurkezpen-arau zehatzak finkatuz (bibliografia, aipamenak, letrakerak... estandarizatuz).
- Aldikotasunaren zehatzasuna finkatuz, urtero 500 orrialde lau zenbakitan kaleratuaz.

Bi adibide aipa ditzakegu soziolinguistikaren kasuan: Jose Mari Velez de Mendizabalek 12. Uztaron idatzitako **Euskararen egoera Arrasaten** eta 1989.ean Paulo Iztuetak idatzitako **Euskarazko irakaskuntzaren erronkak gaur egun**. Nolanahi ere, kontsultagai daude gure webgunean honako helbide honetan: <http://www.uztaro.com/berria/index.cfm>.

LIBURUAK

Jarraian zerrendatzen ditugu soziolinguistikaren inguruan argitaratu ditugun liburuak:

1984, *Elebidun gizarteen azterketa matematikoa*. Jose Luis Alvarez Enparantza
1991, *Giro Urbanoko gazteak eta euskara*. Lezeta Marije; San Martin Elena
1991, *Hizkuntz normalkuntzarako ekinbideak udalerrri mailan*. Askoren artean
1991, *Soziolinguistika gazteentzat (itzulp.)*. Adorez eta Atseginez mintegia;

Bi adibide aipa ditzakegu soziolinguistikaren kasuan: Jose Mari Velez de Mendizabalek 12. Uztaron idatzitako Euskararen egoera Arrasaten eta 1989.ean Paulo Iztuetak idatzitako Euskarazko irakaskuntzaren erronkak gaur egun. Nolanahi ere, kontsultagai daude gure webgunean honako helbide honetan: <http://www.uztaro.com/berria/index.cfm>.

Paperean argitaratzen ditugun liburuez gainera, gure webgunean, honako helbide honetan: <http://www.ueu.org/ueu/buruxkak.htm> zintzilikatu ditugu unibertsitate mailako hainbat testu: liburuak, aldizkariak, eta tesiak. Buruxkak "galburu edo garau mortsak", izenburu horixe jarri zion 1910. urtean Jean Etxepare medikuak bere idazki bildumari. Etxepare euskal idazle bikaina izan zen, laikoa, europar korronte berriei irekia eta arlo zabalei hedatua: kazetaritza, literatura, filosofia, zientzia... Aitzindari hura gogoan, geureganatu dugu izenburua. Bertan kontsulta eginez gero, honako testu hauek agertzen zaizkigu soziolinguistikarekin lotuta.

- Aierbe Mendizabal Axun; Arantzabal Olatz; Irusta Oregi Ane Maite; Loidi Arantzazu; Martinez Laura
- 1992, *Gerrurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian*. Odriozola Lizarribar Joxe Manuel
- 1993, *Hizkuntza, hezkuntza eta elebiduntasuna*. Erriondo Korostola Lore; Isasi Balanzategi Xavier; Rodriguez Bornaetxea Fito
- 1994, *Soziolinguistika matematikoa*. Alvarez Enparantza Jose Luis; Isasi Balanzategi Xabier
- 1994, *Zenbait apunte Laudioko euskaraz*. Urkijo Orueta Natxo
- 1996, *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*. Barrutia Etxebarria Eneko
- 1998, *Nafarroako hizkerak*. Camino Lertxundi Iñaki
- 1999, *GAZTE EUSKALDUNEN LAGUN ARTEKO HIZKERA HEMEN ETA ORAIN*. Esnaola Arbiza Imanol
- 2000, *Txillardegi lagun-giroan*. Aurrekoetxea Olabari Gotzon; Etxebarria Murua Pilar; Ormaetxea Lasaga Jose Luis; Salaberri Muñoa Patxi
- 2001, *Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena*. Arratibel Insausti Nekane ; Azurmendi Ayerbe Mari Jose; Gartzia Fernandez Iñaki

BURUXKAK-UEUKO LIBURU DIGITALAK

Paperean argitaratzen ditugun liburuez gainera, gure webgunean, honako helbide honetan: <http://www.ueu.org/ueu/buruxkak.htm> zintzilikatu ditugu unibertsitate mailako hainbat testu: liburuak, aldizkariak, eta tesiak. Buruxkak "galburu edo garau mortsak", izenburu horixe jarri zion 1910. urtean Jean Etxepare medikuak bere idazki bildumari. Etxepare euskal idazle bikaina izan zen, laikoa, europar korronte berriei irekia eta arlo zabalei hedatua: kazetaritza, literatura, filosofia, zientzia... Aitzindari hura gogoan, geureganatu dugu izenburua. Bertan kontsulta eginez gero, honako testu hauek agertzen zaizkigu soziolinguistikarekin lotuta:

- SOZIOLINGUISTIKA MATEMATIKOA (Xabier Isasi Balanzategi eta Jose Luis Alvarez Enparantza)
- ZENBAIT APUNTE LAUDIOKO EUSKARAZ (Natxo Urkijo)
- NAFARROAKO HIZKERAK (Iñaki Camino (arg.))
- LLUIS ARACILEN IDAZLAN HAUTATUAK (Xabier Falcon (arg.))
- TXILLARDEGI LAGUN GIROAN (Txipi Ormaetxea (arg.))
- BERMEO ETA MUNDKAKO ARRANTZALEEN HIZTEGIA (Eneko Barrutia Etxebarria)
- GAZTE EUSKALDUNEN LAGUNARTEKO HIZKERA HEMEN ETA ORAIN (Imanol Esnaola)

UNIBERTSITATEKO IKASMATERIALAK SUSTATZEKO DIRU-POLTSAK:

Udako Euskal Unibertsitateak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, unibertsitate-mailako euskarazko ikasmaterialak sustatzeko hiru poltsa eskaintzen du urtero, unibertsitateko edozein jakintza-arloan: antropologia, antzerkilaritza, arkitektura, artea, bertsolaritza, ekonomia, filosofia, fisika, glotodidaktika, historia, hizkuntzalaritza, ikasketa klasikoak, informatika, itzulpengintza, kazetaritza eta komunikazioa, kimika, fisika, klimatologia eta meteorologia, literatura, matematika, musika, natur zientziak, osasuna, pedagogia, psikologia, sexualitatea, soziologia, soziolinguistika, zuzenbidea, kultura-gaiak, folklorea nahiz gastronomia.

Deialdi hau edozein autoreri dago zabalik, eta batez ere orain arte testugintza unibertsitariora hurbildu ez direnei dago begira, autore unibertsitarioren esparrua ahalik eta modurik zabalenean egituratzen joan dadin: idazle arituen lanari, gazteena gehitu dakion. Hartara, bereziki baloratzen dira bai autore gazteen lan-proiektu indibidualak bai eta talde-proiektuetan autore gazteak integratzeko ahaleginak.

Poltsaren ezaugarri dira proiektua, lan-jarduerak oro eta lanaren erre-dakzioa euskaraz burutzea; iraupena gehienez 12 hilabetekoa izatea eta lanak argitaratu gabeak izatea.

Poltsak, norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dituzte. Poltsa jaso ahal izateko ezinbestekoa da diplomatua, maila bereko tituluduna edo goi mailako tituluduna izatea. Taldeen kasuan, zuzendariak eta gutxienez taldekideetako erdiek bete beharko dute baldintza hori. Era berean, eskatzaileak bere euskarako gaitasuna frogatu beharko du EGA edo baliokide den titulu edo diploma bidez. Lantaldeen kasuan, partaide guztiek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

EUSKAL KOMUNITATE ZIENTIFIKOAREN DATU-BASEA: INGUMA

Nahiz eta ez izan bereziki Soziolinguistikarako sortutako tresna, *Inguma* Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz UEUk sortutako euskal komunitate zientifiko-intelektualaren datu-basea da. Bertan azken 30 urteetan unibertsitate mailako zientzia eta jakintza-alor bakoitzean euskaraz ahoz eta idatziz ekoitzi denari buruzko oinarrizko informazioa eskaintzen da; euskaraz zer egin den eta nork egin duen azaltzen duen aipu laburra, alegia. *Inguma*-ren helburua euskara batuaren arauak finkatzen hasi zirenetik gaurdainoko produkzio zientifiko-intelektual osoa jasotzea da (unibertsitate mailakoa eta euskaraz).

Inguma-ren helburu nagusia euskal produkzio akademikoaren berri ematea da. Hortaz, ez da bibliografia nazional bat, eta ez da dokumentu bakoitzaren deskribapen edota baloraziorik egiten (euskararen kalitateaz,

Nahiz eta ez izan bereziki Soziolinguistikarako sortutako tresna, Inguma Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz UEUk sortutako euskal komunitate zientifiko-intelektualaren datu-basea da. Bertan azken 30 urteetan unibertsitate mailako zientzia eta jakintza-alor bakoitzean euskaraz ahoz eta idatziz ekoitzi denari buruzko oinarrizko informazioa eskaintzen da; euskaraz zer egin den eta nork egin duen azaltzen duen aipu laburra, alegia. Inguma-ren helburua euskara batuaren arauak finkatzen hasi zirenetik gaurdainoko produkzio zientifiko-intelektual osoa jasotzea da (unibertsitate mailakoa eta euskaraz).

Inguma datu-basean euskaraz egindako 256 doktorego-tesi katalogatuta daude. Kontuan hartuta dokumentu-mota honek euskarazko produkzioaren sustapenean eta komunitate zientifikoaren trinkotzean izan dezakeen garrantzia, Udako Euskal Unibertsitateak, euskarazko doktorego-tesiak euskarri elektronikoan (PDF formatuan) argitaratzen dihardu. Doktorego-tesien argitalpen digitala, egileen baimenaz egiten da, ISBN zenbakia dauka eta Inguma datu-basetik zuzenean eskura daiteke.

adibidez), *Inguma* euskarazko produktu guztiak eta egile euskaldunak eza-gutarazteko tresna azkar eta eraginkorra izateko asmoz sortu baita.

Unibertsitate mailako euskarazko produkzioa bere osotasunean jaso da mota ezberdinetako produktuak kontuan hartuz: ahozkoak (hauen barnean, *hitzaldiak, ikastaroak, irakasgaiak*) eta idatzizkoak (*hots, liburuak, artikulua, hitzaurreak, liburu-aipamenak, edizio kritikoak, ikerketak, doktorego-tesiak*).

Egileen berri emateak, euskal komunitate zientifiko-intelektualaren partaideen arteko ezagutza eta komunikazioa ahalbideratzen duelakoan gaude, eta honako helbide hau klikatuaz irits gintezke bertara: www.inguma.org.

Une honetan *Inguma* datu-baseak UEUren produkzioarekin batera (ikastaroak, hitzaldiak, 3. zikloko irakasgaiak, liburuak zein artikulua), unibertsitate mailako euskarazko zein erdarazko 100 aldizkariren euskarazko artikulua, 45 argitaletxeren euskarazko liburuak, zenbait unibertsitateen euskarazko eskaintza akademikoa eta hainbat erakunderen hitzaldiak zein ikastaroak biltzen ditu.

Orotara Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-baseak momentu honetan 26.000 dokumenturi atxikiriko 6.600 egile eskaintzen ditu, guztira 32.600 erregistro. Dokumentu horietarik 9.311 artikulua dira; 3.510, liburu-aipamenak, hitzaurreak, liburu-atalak edo edizio kritikoak; 256, doktorego-tesiak; 14, ikerkuntza-proiektuak; 1.279, liburuak; 387, itzulpenak; 7.750, hitzaldiak; 1.115, ikastaroak; eta 2.375, irakasgaiak.

Inguma datu-basean euskaraz egindako 256 doktorego-tesi katalogatuta daude. Kontuan hartuta dokumentu-mota honek euskarazko produkzioaren sustapenean eta komunitate zientifikoaren trinkotzean izan dezakeen garrantzia, Udako Euskal Unibertsitateak, euskarazko doktorego-tesiak euskarri elektronikoan (PDF formatuan) argitaratzen dihardu. Doktorego-tesien argitalpen digitala, egileen baimenaz egiten da, ISBN zenbakia dauka eta *Inguma* datu-basetik zuzenean eskura daiteke. Une honetan *Inguma* datu-basean 9 doktorego-tesien argitalpen digitala kontsulta daiteke.

Soziolinguistikaren inguruko bilaketak egin ditugu, eta hona hemen emaitzak:

- Produkzio bilaketa gai-sarrerak erabiliaz:
 - "Pasaiaiko gazteen hizkuntza jokaerak" ikerketa, materiala eta jardunaldia. 2006
 - Bai Euskarari Akordioa Herrietan, euskalgintzak entitateen konpromisoak dinamizatzeko herri mailako eredu bat Kontseilua. 2006
 - Erabilera ikertu eta bultzatu: Soziolinguistika Klusterraren egitasmoak aurrera begira. 2006
 - Erabilera-planen aldeko argudioak: barneratu, sinetsi eta transmititu. 2006
 - Erronka berriak euskararen erabileran. 2006

- Europako Itun Konstituzionalak eskubide gabe utzi ditu hizkuntza-komunitate ugari. 2006
- Euskal Eskolak hizkuntzen erabilera eta euskararen indarberritzea ahalbidetzeko markoa. 2006
- Euskara erabiltzeko eskubidea Nafarroako Foru Komunitatean. 2006
- Euskara eta lan mundua: erabilera nola bultzatu. 2006
- Euskara Nafarroa Garaian: iraupenetik garapenera?. 2006
- Euskara Nafarroa Garaiko Administrazioan. 2006
- Euskararen egoeraz Iparraldean: zenbait gogoeta sarrera gisa. 2006
- Euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosoziala. 2006
- Euskararen erabilera sustatu: Euskararen Erakunde Publikoaren erronka. 2006
- Euskararen erabilera: egoera eta aurrera begirako egitasmoak. 2006
- Euskararen erabileraren normalizazioa Gipuzkoako Foru Aldundian. 2006
- Euskararen Erakunde Publikoa hizkuntza politika bat egitura-tzen Ipar Euskal Herrian. 2006
- Garai berriak, hizkera berriak; kaleko euskararen bilakaera. 2006
- Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak 16 udaberri ditu. 2006
- Irakaskuntza elebiduna BAB-en: eskaintzaren eta eskaeraren arteko aldea. 2006

Aurkitutako produkzio kopurua: 1248.

• Produkzio bilaketa saila erabiliaz:

Soziolinguistika Saila

- Bai Euskarari Akordioa Herrietan, euskalgintzak entitateen konpromisoak dinamizatzeko herri mailako eredu bat Kontseilua. Hitzaldia. 2006
- Erabilera ikertu eta bultzatu: Soziolinguistika Klusterraren egitasmoak aurrera begira. Hitzaldia. 2006
- Erronka berriak euskararen erabileran. Ikastaroa. 2006
- Euskal Eskolak hizkuntzen erabilera eta euskararen indarberritzea ahalbidetzeko markoa. Hitzaldia. 2006
- Euskara eta lan mundua: erabilera nola bultzatu. Hitzaldia. 2006
- Euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosoziala. Hitzaldia. 2006
- Euskararen erabilera sustatu: Euskararen Erakunde Publikoaren erronka. Hitzaldia. 2006
- Euskararen erabilera: egoera eta aurrera begirako egitasmoak. Hitzaldia. 2006
- Euskararen erabileraren normalizazioa Gipuzkoako Foru Aldundian. Hitzaldia. 2006
- Garai berriak, hizkera berriak; kaleko euskararen bilakaera. Hitzaldia. 2006

Gaur egun informazio asko dago eta Interneti esker hein handiz eskuragarria da. Baina informazioak gordinik ez du erabilera edo interes berezirik. Kudeaketa dokumental eta informatiboaren bitartez informazioa aktibatzen egiten da. Eta horixe izango da atari honen egitekoa: oso barreiatuta dagoen informazioa bildu, antolatu, sailkatu eta atariaren erabiltzaileari "landuta" eskaintzea. Unibertitate eta euskararekin lotuta dagoen informazio guztia eskuragarri izango du erabiltzaileak "klik" batean.

*Bestetik, Unibertsitate.net
ez da informazio-emaile
soila izango,
erabiltzaileen arteko
komunikazioa eta
interakzioa bultzatzea
baititu helburu. Hori dela
eta, ataria parte hartzea
sustatzeko diseinatu da.
Atal guztietan
erabiltzaileak albisteak,
argazkiak eta apunteak
igotzeko aukera izango
du eta informazioa
trukatzeko aukera izango
du blog, foro, iruzkin eta
abarren bitartez.*

- Hizkuntzak etnografia ere behar du. Gazteak eta euskara ikuspuntu antropologiko batetik. Hitzaldia. 2006
- Talde naturaletan euskararen erabilera suspertzeko eredu teoriko eta metodologiko bat: Kuadrilategi egitasmoa. Hitzaldia. 2006
- Zenbait gogoeta portaera linguistikoaren kausalitateaz. Hitzaldia. 2006
- Estatutik kanpoko etorkinak eta hizkuntza-normalizazioa EAEn: administrazio publikoaren eta herri-mugimenduen ahaleginak. Hitzaldia. 2005
- Globalizazio neoliberala eta bere ideologia eboluzionista; ondorioak kulturen arteko harreman hierarkikoetan. Hitzaldia. 2005
- Globalizazioa, migrazioa eta hizkuntzak. Ikastaroa. 2005
- Hizkuntza ekologiarantz euskaratik. Hitzaldia. 2005
- Immigrazioa eta kultura artekotasuna Malerrekan. Diagnostika eta lan-proposamenak. Hitzaldia. 2005
- Immigrazioa, naziotasuna eta herritartasuna: Sakanako esperientzia. Hitzaldia. 2005
- Inmigrazioa: identitate etnikoa eta akulturazio-estrategiak EAEn. Hitzaldia. 2005

Aurkitutako produktu kopurua: 246.

- Egilearen bilaketa egiten badugu soziolinguistika gai-sarrera erabiliaz:

Jokin Apalategi Begiristain 82
Paul Bilbao Sarria 5
Nekane Larrañaga Aizpuru 12
Manu Sanchez de Miguel 2
Carlos Vilches Plaza 7
Mikel Vilches Plaza 1

Guztira, 6 egile aurkitu dira.

“Euskararen Unibertsoko” Plangintzarako Lan-Saila 1
Maite Abarrategi 2
Adorez eta Atseginez mintegia 9
Jose Antonio Aduriz 20
Inaxio Agirre 8
Luis Agirre 2
Ester Agirre 6
Iñaki Agirre 1
Jose M^a Agirre Eskisabel 1
Jabier Agirre Lasarte113
Anaida Agirre Mandaluniz3

Amaia Agirre Pinedo1
Iñaki Agirreazkuenaga Zigorraga 13
Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga 78
Paulo Agirrebaltzategi Kortabarria 61
Joxe Luix Agirretxe 1
Joseba Andoni Agirretxea 1
Gontzal Agote 2
Imanol Agote Alberro 2
Urko Aierbe 1

Guztira, 604 egile aurkitu dira.

UNIBERTSITATEA.NET ATARIA

Deskribaketarekin amaitzeko, ezinbestekoa zaigu aurkeztu berri dugun atariaren berri ematea. Hau ere ez da espresuki soziolinguistikarako sortua, baina berau ere presente dagoenez, honako hau baliatu nahi genuke bere berri emateko.

Proiektua hiru ardatz nagusitan oinarritzen da:

- 1. Komunitate unibertsitarioaren bilgunea.** Atari honek bilgune eta erreferentzia izan nahi du unibertsitatearekin lotura edo interesa duen edonorentzat: ikasle, irakasle, ikertzaile, guraso, kazetari... horrela, euskarazko komunitate unibertsitarioaren izaera garatuz.
- 2. Informazioaren fokalizazioa.** Gaur egun informazio asko dago eta Interneti esker hein handiz eskuragarria da. Baina informazioak gordirik ez du erabilera edo interes berezirik. Kudeaketa dokumental eta informatiboaren bitartez informazioa aktibatu egiten da. Eta horixe izango da atari honen egitekoa: oso barreiatuta dagoen informazioa bildu, antolatu, sailkatu eta atariaren erabiltzaileari "landuta" eskaintzea. Unibertsitate eta euskararekin lotuta dagoen informazio guztia eskuragarri izango du erabiltzaileak "klik" batean.
- 3. Komunikazioa eta interakzioa bultzatu.** Ataria ez da informazio-emaile soila izango, erabiltzaileen arteko komunikazioa eta interakzioa bultzatuko ditu. Esparru honetan zer egiten den ikusteaz gain, elkarren berri izateko aukera emango da hasieran aipatu dugun komunitate izaera hori bultzatuz. Horretarako hainbat tresna aurreikusitakoak dira: foroak, Blogak, bilatzaile pertsonalak...

Azken baten, **Unibertsitatea.net** ataria komunitate unibertsitario euskaldunari zerbitzu emateko jaio da.

Bertan, unibertsitatearekin lotura edo interesa duen pertsona orok (ikasleak, irakasleak, ikertzaileak, unibertsitatara sartzear daudenak, gurasoak, kazetariak...) hainbat zerbitzu topatu ahal izango ditu:

ZIZTU BIZIAN: Egunerokotasuna izango da atal honen ardatza: unibertsitate munduko berriak, argazkiak eta unibertsitate munduarekin loturiko Blogak topatuko ditugu bertan. Asteko gorabeherak batuko dituen buletinera ere harpidetu ahal izango da.

ZER IKASI NON IKASI: Unibertsitate mailako titulazioen gaineko informazioa bildu da bertan. Unibertsitate eta unibertsitate alorrean diharduten erakundeen gaineko informazioa, ikastegiarena... euskarazko titulazioena, azken batean. Hainbat bilaketa egin hala izango dira bertan: jakintza arloa, lurraldea, zikloa,...

OTARREA: Unibertsitate alorreko lan, txosten, apunte eta bestelako dokumentuak partekatzeke gunea da hau. Edozein formatutako dokumentuak onartuko dira eta kalitate bermea eskuratzeko aukera ere egongo da. Material bakoitzari nota jartzeko aukera ere eskainiko da.

ERREMINTAN KUTXA: Atal honetan, Interneten aurki daitezkeen euskaraz ikasteko eta ikertzeko baliabideak antolatu eta sailkatuta erakutsiko dira. Euskarazko baliabideei lehentasuna emango zaie, (esate baterako, *Inguma* Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basearen tankerakoei), baina beste hizkuntza batzuetako eduki eta baliabide nagusietarako sarbidea eskainiko da.

AHOLKULARITZA ZERBITZUA: Unibertsitatean sartzeko dagoen ikasleari, unibertsitateko ikasleari eta unibertsitatea bukatzearen dagoen ikasleari, aholkularitza emango zaio foroan eta orientazio-zerbitzuaren bitartez. Foroan beraien zalantzak eta iritziak trukatu eta kontrastatzeko aukera izango dute. Orientazio-zerbitzuan, berriz, galderak egiteko aukera izango dute eta aditua den norbaitek erantzungo die. Zerbitzu hau orobat interesgarria da etorkizuneko unibertsitateko ikasleen aholkulari direnentzako, hau da, ertainetako irakasle eta gurasoentzako. Bestetik, unibertsitateak ikasleei ikasketak garatzeko eskaintzen dizkien zerbitzuen inguruko informazioa zabalduko da atal honetan. Bekak nola egin eta zein garaitan aurkeztu behar diren azaldu, atzerrian ikasteko programen berri eman, kredituak amortizatzeke aukerak aztertu, lan-poltsak, praktikak egiteke aukerak...

IKASLEAREN TXOKOA: Ikaslearen izaerari lotuta doaz egoitza bilatzearen beharra (pisua, erresidentzia eta bestelako aukerak), bigarren eskuako gauzak saltzeko eta erosteko beharra, aldizkako lanak bilatzeko beharra eta alde ludikoarekin lotutakoak ere. Beharrian horiei guztiei erantzuteko ikasleak atariaren azokara jotzeko aukera izango du.

BEHATOKIA: Behatokian ikasketa unibertsitarioei buruzko informazio zabala eskainiko da estatistika eta txosten esanguratsuen bitartez. Hau da, ikasketen estatistikak, ikasketen eta lan-merkatuaren arteko korrelazioa...

Lehen hiru atalak dagoeneko martxan daude. Gainontzekeak urte hasieran egongo dira erabilgarri *Aholkularitza* atala kenduta, hau otsailean jarriko baita indarrean (unibertsitate sartzeko behar duten ikasleek data

horretan erabaki behar baitute zein ikasketa aukeratu behar duten).

Bestetik, *Unibertsitate.net* ez da informazio-emaila soila izango, erabiltzaileen arteko komunikazioa eta interakzioa bultzatzea baititu helburu. Hori dela eta, ataria parte hartzea sustatzeko diseinatu da. Atal guztietan erabiltzaileak albisteak, argazkiak eta apunteak igotzeko aukera izango du eta informazioa trukatzeko aukera izango du blog, foro, iruzkin eta abarren bitartez.■